

Izan zirelako gara, izan garelako izango dira

Maite Lekuona

*Nire irakasleekin asko ikasi dut;
nire lankideekin, gehiago;
nire ikasleekin, are gehiago.*

Anonimoa

Ibilia eta zaildua da euskalduntze-alfabetatze alorreko euskara-irakasleria bere jardun horretan. Ez dira gutxi 25. urtera arian-arian iritsi diren euskaltegiak, eta, euskara-irakasleak ere halatsu. Artikulugileak, euskararen irakaskuntzan urte luzetan jardundakoa da eta ederki daki, urteen joanean, bilakaeraren berri. Halatan, gainbegirada egin dio lehenekoari, oraingoari, baita etorkizuneko euskaltegiei ere. Irakaslearen eta ikasleen arteko harremanak, sentipenak, feedbacka, ikasleriaren profila, besteak beste hartuko ditu gogoetagai.

Sarrera Hizkuntzen irakaskuntza asko aldatu da azken 25 urteotan, eta, beraz, euskaltegi-tako irakasleok ere moldatu egin behar izan dugu aldaketa horietara. Hasierako urteetako ezjakintasun eta bakardadetik gaur egungo egoerara ailegatzeko aldaketa handiak izan ditugu. Aldaketa horietan laguntzeko, emozioen ezagutza eta kudeaketak asko lagundu digu gure lana gero eta hobeto egiten. Ondorengo orriotan, hasierako urte haiek eta gaur egungo egoera nolakoak den azaltzen saiatuko naiz. Ondoren, egindako ibilbidean lagun izan dugun adimen emozionalaren zertzeladak emango ditut, eta adimen emozionalaren kudeaketak eragin duen gaur egungo euskaltegi-irakaslearen argazkia. Era berean, irakaslearen eta ikasleen arteko harremanak nolakoak diren erakusten saiatuko naiz. Azkenik, etorkizuneko euskaltegiak, nire ustez, nolakoak izango diren marrazten ahaleginduko naiz.

Euskaltegien hasierako urteak

Duela hogeita bost bat urte, euskarako eskolak ematen hasi ginenok berriazko prestakuntzarik gabe hasi ginen langintza honetan. Euskarako tituluren bat izatea aski zen akademia edo hizkuntz eskoletan euskara irakatsi ahal izateko. HABEren sorrerarekin, ordura arteko hizkuntz akademiak eta gau-eskolak euskaltegi bihurtu ziren,

eta homologazioaren bidean sartu. Ikastetxe horietan ari ginen irakasleok ere homologatze-bidean sartu ginen: euskarako tituluaz gain, unibertsitateko diplomaduna izan beharra zegoen euskaltegietan aritzeko. Hortaz, euskaltegietako irakasleen artean titulu desberdineko hainbat lagun bildu ginen: baziren irakasle-ikasketak eginak zituztenak; baziren filologi ikasketak egindakoak; baziren, era berean, unibertsitateko beste ikasketarik egindakoak ere. Alabaina, lehentxeago aipatu bezala, berriazko prestakuntzarik ez genuen euskarako eskolak emateko.

Euskaltegietara etortzen zirenak hamasei urtetik gorako helduak ziren eta euskara ikastea zuten helburu. Horretan ere, hau da, helduen irakaskuntzan, gure prestakuntza eta eskarmentua hutsaren hurrengoak ziren, kasurik gehienetan. Unibertsitatean izan genituen eskolak izango ziren “helduen” irakaskuntzan izandako eredurik hurbilena. Garai hartako unibertsitateko eskolek, ordea, antz oso gutxi zuten euskaltegietan eman behar genituen eskolekin: unibertsitateko geletan ehun ikasletik gora izaten ginen klasean, baina euskaltegietan hamabi-hamabost laguneko taldeak genituen; irakasleen eta ikasleen arteko harremanak ere ez zuen zerikusi handiegirik kasu batean eta bestean, talde txikiak hurbiltasun handiagoa sortzen baitu eta harreman estuagoa.

Euskaltegietan genituen baliabideak ere ez ziren oso ugariak: ez zegoen egunkaririk euskaraz, aldizkari euskaldunak gutxi ziren kioskoetan eta telebista euskalduna hasi berria zen. Liburu eta metodo gutxi zeuden argitaratuak, eta argitaratzen ziren azken ordukoen atzetik ibiltzen ginen, buru-belarri, euskaltegietako irakasleok. Eskolak emateko, irakasleok arbela erabiltzen genuen, euskarri nagusi gisa. Fotokopiak erabiltzen genituen ikasleei ariketak emateko eta magnetofonia eta grabazio gutxi batzuk ziren erabiltzen genituen euskarririk berrienak. Geu ere, irakasleok, ibiltzen ginen materiala sortzen eta grabazioak egiten ikasleek ahalik eta etekin handiena atera zezaten gure eskoletatik.

Hortaz, gure lanbideari nola edo hala ekin genion, helburu nagusi bat lortzeko: euskara irakatsi, hori nahi zuenari. Izan ere, lehen esan bezala, hori zen motibazio nagusia gure ikasleen artean.

Gaur egungo euskaltegiak

Atzera begira jarrita, denbora laster joan zaigula iruditzen zaigun arren, bizkarrean daramagun eskarmentuak asko aldarazi du gure jarduna. Hogeita bost urtean, gauzak izugarri aldatu dira gizartean, eta lanbideari, hau da, helduen irakaskuntzari eutsi diogunok, poliki-poliki, baina bilakaera itzela ezagutu dugu geure zereginen.

Ikasturte-hasieran oraindik ere kilimak sumatzen ditugun arren gure lehenengo eskola-egunean, ohitu egin gara talde txiki baten aurrean eskolak ematera. Euskaltegietara etortzen zaizkigun ikasleak euskara ikastera etortzen bazaizkigu ere, askotan, euskara ikastea ez den beste arrazoiren batek bultzatuta hurbiltzen dira horietako asko gurera: lan-tokian agintzen dietelakoa edo lanposturen bat aurkitzeko ezinbesteko dutelako euskara-tituluren bat.

Egun esku-eskura ditugun baliabideek ere antz gutxi dute duela hogeita bost urte genituenekin. Egunero jasotzen dugu euskarazko egunkaria gure euskaltegietan; aldizkari euskaldunak ere ugari ditugu kioskoetan; telebista bat baino gehiago ditugu euskara hutsean gure eskura; irakas-kuntzan material ugari sortu da euskarazko eskolak ematen laguntzeko; HABEk ere material ugari sortu du beren-beregi helduen irakaskuntzan erabiltzeko.

Horretaz guztiaz gain, ordenagailuek eta, batik bat, Internetek benetako iraultza ekarri dute gizarte osora eta baita irakaskuntzara ere. Gaur egun, edonork du eskura, klik pare bat eginda, nahi duen informazioa. Garai bateko irakale orojakile eta informazioiturri nagusi zenaren garaiak amaitu dira. Egun, interneten trebatutako edozein ikaslek irakasleak berak adina informazio du esku-eskura.

Hala ere, internetek eta teknologia berriek ekarri dute ez hizkuntza irakaslea desagertzea, baizik eta errotik aldatzea irakasleonek eguneroko jarduna. Irudikatu ere ezin genituen aukerak eskaintzen dizkigute gaur egungo baliabideek eta informazio-sistemek.

Gaur egun, euskara-irakasleok ez gaude isolatuak munduan geure hizkuntza nola irakatsi asmatu ezinik. HABEk berak urteak daramatza euskaltegietako irakasleak trebatzeko ikastaroak antolatzen. Mundu zabalean, bestalde, ugari dira helduei irakasten zaizkien hizkuntzak bigarren hizkuntza gisa. Hizkuntza horiek, gainera, euskarak baino hedadura eta indar handiagoa dute, eta, beraz, baliabide gehiagorekin, milaka dira langintza horretan dabiltzan irakasleak. Horretaz gain, ugariak dira hizkuntzen irakaskuntzari buruz egiten diren ikerketak, eto. ikerketa horiei esker, hobeto ezagut dezakegu nola irakatsi hizkuntzak modu eraginkorrean, eta, batik bat, gure ikasleek nola atera diezaioketen etekinik hoberena egiten duten esfortzuari.

Ildo horretatik, azken urteetako teoriak estu lotzen dituzte ikaste-prozesuak eta emozioen kudeaketa. Emozioekin lotuta ikasitako gauzak errazago gogoratzen omen ditugu. Hortaz, emozioak ezagutzea eta behar bezala kudeatzea ezinbestekoa izango dugu, gure lana gero eta hobeto egiteko.

Horiek horrela, gure jardunak, egokia izango bada, ezinbestean izan behar du kontuan emozioen mundua, adimen emozionala.

Adimen emozionala

Daniel Goleman-ek 1995ean bere *Emotional intelligence* argitaratu zuenetik, adimen emozionalak interes handia piztu du eta zeresan handia eman. Goleman-en ustez, adimen emozionalak lagunduko digu gure emozioak eta sentimenduak kudeatzen; ondoren, gure pentsamenduak eta ekintzak ere behar bezala kudeatzeko.

Irakaskuntzan jendeak zerbait egin dezan bilatzen dugu. Gure kasuan, hain zuzen ere, ikasleek hizkuntza bat ikas dezaten dugu helburu. Horretarako, lehen lanak, noski, nor bere burua ezagutzea izan behar du: zein diren

puntu ahulak eta sendoak. Azaltzen diren unean, geure emozioak eta horiek eragiten dizkiguten sentimenduak identifikatzen ikasi behar dugu. Gure emozioak ezagutzen baditugu, hobeto kudeatu ahal izango ditugu gure sentimenduak eta baita gure ekintzak ere. Ez dago emozio onik edo txarrik: emozioak, bizi dugun egoeraren arabera, atseginak ala desatseginak dira.

Era berean, geure buruak behar bezala ezagutu ondoren, ezinbestekoa da ondokoen ahuldadeak eta sendotasunak ezagutzea, beren emozioak ezagutzea. Enpatiaren bidez lortzen da hori: bestearen lekuan jarri eta beste horren sentimenduak eta beharrak ezagututa, hain zuzen ere.

Emozioak estu-estu daude lotuta motibazioarekin, eta motibazioa zenbat eta handiagoa izan, etekin hobea aterako diogu geure lanari. Motibazioa areagotzeko, estimulatu egin behar dugu geure burua. Gizakiok estimuluak behar ditugu, bai barrukoak (gai al naiz nire gaitasunak onartzeko?), bai kanpokoak (besteen onarpena, aitortpena, irribarre bat. keinu bat...). Zenbat eta estimulu positibo gehiago [oso. motibazio handiagoa izango dugu, eta, motibazio handiagoarekin, gogorrago ekingo diogu geure zereginari. Nork bere burua gai ikusi behar du ari den horretarako.

Geure emozioak ezagutu eta trebatuz gero, bilakatu egingo gara eta gure sinismenak aldatu. Asertiboak izatea ezinbestekoa da, hau da, gaintzekoei jakinarazi behar diegu zer sentitzen dugun eta zer pentsatzen dugun, baina inor mindu gabe. Gureekin batera, besteen sentimenduak, iritziak eta usteak ezagutu eta errespetatu behar ditugu. Denok baldin badugu denon berri, gaizki-ulertuak ekidingo ditugu, gatazkak saihestu eta, aldi berean, besteen aurrean garen bezala azaltzerik izango dugu, batere beldurrik gabe. Uste edo sineste asertiboak izan behar ditugu, hain zuzen ere, horiek izango direlako ondo sentiarazten gaituztenak. Uste eta pentsamendu asertiboek besteen aurrean beldurrik gabe azaltzen lagunduko digute.

Askotan, ohikeriaz, gauza berdinak egiten ditugu, eta errepikatze horrek eskarmentua sorrarazten duela uste dugu. Behin eta berriz jokaera edo ekintza bat errepikatzeak trebeago eta sendoago bihurtuko gaituelakoan gaude. Baina, besterik gabe, zerbait bat errepikatzeak ez digu eskarmenturik emango. Eskarmentua egoera korapilatsu edo berriei aurre eginez lortzen da. Beraz, ez diogu beldurrik izan behar gauzak beste modu batean egiteari. Aldaketa ona izaten da, gehienetan, eta, hala ez denean, akatsetatik ikasteko balioko digu, eskarmentua lortzeko eta hazitzeko. Benetan pentsatzen duguna egiten ari bagara, geure buruarekin zintzoak bagara, eta egiten dugun horretan sinesten badugu, lortuko dugu helburua.

Emozioak omen dira, beraz, gure ekintzen motorra. Eta emozio horiek ezagutu eta behar bezala kudeatu egin behar ditu eragiteko gaitasuna behar duen irakasle-liderrak.

Irakasle liderra

Lider hitzak badu irakasle askorentzat boterearekin lotutako esanahi ez oso gustukoa. Berez, oso kontzeptu zabala den arren, liderra honela defini dezakegu: etorkizunari aurre hartuz, besteengan eragiteko gauza den pertsona, beste horiek gogor eta gogo onez ahalegindu daitezen

guztiontzat onak diren helburuak lortzen. Arestian esan bezala, irakas-kuntzan jendeak zerbait egin dezan bilatzen dugu. Beraz, gure ikasleen aurrean gaudenean, lider izaten saiatu beharra daukagu gure ikasleek gogor eta gogo onez ahalegindu daitezen helburuak lortzen. Irakasleak ikasleak berarekin identifikatzea lortu behar du helburuak lortzeko.

Irakasleak lortu behar du ikasleak berarekin identifikatzea, baina ikaslearen autonomia bultzatu eta sustatu behar du. aldi berean. Irakaslea eredu da ikasleentzat eta horrela izan behar du: irakasleak ezagutza-maila oso ona behar du, ur onetatik edan behar duelako ikasleak. Baina, horrekin batera, irakasleak ezinbesteko ez izatea lortu behar du. Ikasleak izan behar du bere ikas-prozesuaren jabe.

Irakasleak esan, irakatsi, agindu egin behar du, baina horrekin batera: esandakoa ulertu den ikusi, saiatzera animatu, *feedbacka* eskaini, ikasleak berriro egin dezan lortu eta autokritika gidatu behar du

Feedbacka eskaini behar da prozesua hobetzeko edo helburua lortzen laguntzeko, ez akatsak edo hutsuneak nabarmentzeko. *Feedbacka* eskaintzeak esan nahi du kritika egitea, eta kritikak ez du zertan negatiboa izan. Kritika hitzari beldurra diogu, eta *feedbacka* egin behar duenak pentsatzen badu kritikak esanahi negatibo hori duela, *feedbacka* jasoko duenak ere horrelaxe ikusiko du: akatsak ateratze hutsa, negatiboa den zerbait. Beraz, kritika egiteak, hau da, *feedbacka* egiteak izan behar du intentzio oneko iritziak ematea, helburua lortzeko bidean lagunduko duten iritziak ematea.

Era berean, *feedbacka* egiten dugunean zehatzak izan behar dugu, eta ez orokorrak. Orokorregiak izanez gero, esan nahi dugun hori. segur aski. ez da behar bezala helduko, eta ez du bere funtzioa beteko. Horretaz gain, deskriptiboak izan behar dugu *feedbacka* egiten dugunean eta ez ebaluatzaileak. Ohituta gaude “hau gaizki dago”, “hori ez da zuzena” esatera, hots, ebaluatzaile izatera. Ikasleari, ordea, iradoki egin behar zaizkio gauzak, modu onean, eta ez balorazio txarrik egin. Ebaluazio txar bat egin ordez, hitz onek lagundutako *feedbacka* eginez gero, gehiago lagunduko diogu ikasleari, berari gogoeta eginaraziko diogu, eta berak aterako ditu ondorioak.

Azkenik, *feedbacka* egiterakoan praktikoak izan behar dugu, hau da, garbi izan zertarako egiten ari garen *feedbacka*. Ikasleari min egiten badiogu kontrako efektua lortuko baitugu *feedbackarekin*. Oso ondo pentsatu behar dugu *feedbacka* nola eskaini, trebezia handiz jokatu eta kontu izan eragin ditzakegun ondorioekin.

Asertiboa izan behar du irakasleak. Bere interes propioak defendatu behar ditu, eta iritziak askatasunez adierazi, baina aintzat hartuta gainerakoek nola pentsatu eta sentitzen duten. Ez dira gauzak halaberrez eginarazi behar, baina norberarentzat onena bilatu beharra dago. Ezinbesteko baldintza da inor ez mintzea. Pertsona asertiboan artean, beraien arteko harremanetan erlaxazio handiagoa gertatzen da.

Asertibotasunarekin batera, enpatia behar du irakasleak, hau da, lehen esan bezala, bestearen tokian jartzeko eta hark sentitzen duena

hautemateko intuiziozko ahalmena behar du. Askotan, alde batetik besterik ez ditugu bizi egoerak.

Bestearen tokian jartzeak beste ikuspegi bat ematen du, eta hartutako erabakiak bi aldiz pentsatzera eramango gaitu. Guk oso garbi eta erraz ikusten dugun edozer ez da, askotan, hain garbia eta erraza bestearen lekuan jarriz gero. Irakasleak ahalmen hori ahalik eta gehien garatu behar du, eta, horretarako ariketa oso ona da ikasle-rola hartzea tarteka. Ikasle-rola hartuta, irakasleak bere burua janzten jarrai dezake, gainera. Horrela, aldi berean, bi helburu lortuko ditu irakasleak: ikaslearen ikuspegia izatea eta bere prestakuntza areagotzea.

Irakasleak gertu egon behar du, prestakuntzaren bidez, aldaketarako. Mundua aldatzen ari da etengabe, eta irakasleak ezin du garai batean jokatzeko zuen modu berean jokatu. Irakasleak, munduak bezala, etengabe aldatzen joan behar du. Teknologia eta baliabide berri asko ditugu inguruan, eta, horiei esker, irakaskuntzan ate berri asko zabaltzen ari zaizkigu.

Jakina da abiadura handia daramatela berrikuntza teknologikoek, eta zaila dela beraien abiadura jarraitzea. Hala ere, saiatu egin behar du irakasleak teknologia horiek ezagutzen eta erabiltzen, aurrean izango dituen ikasle askok eta askok oso ondo ezagutu eta erabiliko dituztelako baliabide horiek, eta, gainera, irakasleari ere erabiltzeko eskatu.

Gaur egungo euskaltegietako irakaslea ez da garai batekoa bezalako. Aldatu egin behar izan du, aurrean duen ikaslea ere aldatu egin delako. Horrek, jakina, irakasleikasle harreman berria ekarri du gurera.

Irakasle-ikasle harreman berria

Mundua aldatzen ari den neurrian aldatzen ari gara mundukoak ere, nahiz eta askotan hala ez uste izan. Gaur egun, euskaltegietako eskoletan aurrean ditugun ikasleak ez dira garai batekoak bezalakoak. Dena den, ez diogu beldurrik izan behar aldaketari.

Garai batean, logistika oztupo larria zen, eta baliabide eskasak genituen euskaltegietan. Gaur egun dauden informazio-sistemekin, azkeneko berrikuntzak eta teknologiak edonork ditu eskura eta ia doan gainera. Informazioaren aroa bizi dugu eta denok daukagu eskura, bai ikasleek, bai irakasleok, garai batean irudikatu ere ezin genuen informazio-kopurua. Dagoeneko ez da abantaila informazio pribilegiatua izatea, informazioa gizarteratu egin delako. Gero eta maizago gertatzen zaigu, gainera, geure ikasleek, gazteenek batez ere, geuk baino hobeto eza-gutzea nola erabili informazioa lortzeko baliabideak.

Hala ere, informazioa eskura edukitzeak ez du esan nahi ezer dakigunik. Jakiteko, edo benetan ikasteko, informazioa kudeatu, gogoeta egin eta behar bezala erabili egin behar dugu. Ikasteko modurik onena irakastea da, eta irakasleok leku ezin hobea dugu, ahalik eta gehien ikasteko eta geure ikasleei ikasgarazteko.

Irakasleok helburuak adostu egin behar ditugu ikasleekin, eta horretarako ezinbestekoa da ikasleekin negoziatzea. Helburuak ezarri, egokitu

eta, esan bezala, adostu egin behar ditugu ikasleekin. Ikasleak nahi ez badu, ez dugu ezer lortuko, eta hori, azken finean, txarra izango da ikaslearentzat berarentzat, baina baita irakasleontzat ere. Gure aurrean ditugun ikasleak helduak dira, eta, beraz, garatuak dituzte gaitasun komunikatibo batzuk, beste hizkuntzaren batean bada ere. Horrez gain, gutxi-asko, argi daukate lortu nahi duten xedea. Horrenbestez, gure ikasle helduekin negoziatu eta adostu egin behar ditugu helburuak.

Irakasleok sinestu egin behar dugu litekeena dela jarria dugun helburu hori betetzea, eta, hortik abiatuta, ikasleari ere sinestarazi egin behar diogu jarritako helburua lor dezakeela. Ikasleak egiten ari diren lanaren kontziente bihurtu behar ditugu, eta horrela lortuko dugu egin nahi dugun hori. Irakasleok ikasleei adorea eman behar diegu etengabe. Irakasleok, hasteko, geure ahaleginak hauteman egin behar ditugu, eta, ondoren, ikasleenak. Are gehiago, ikasleak berak ez badira jabetzen egindako aurrerabideaz, gure lana izango da ikusaraztea. Irakasleok adostutako helburuak lortzeko “egoskortasuna” behar dugu.

Ikasleen arteko lankidetzeta bultzatu behar dugu. Talde-lanak berdin arteko elkarrekintzarako aukera ematen du, eta ikasleek ondoen ikasten dute bere kideengandik edo beren kabuz egiten dutenetik. Ikasgelan, ona da ikasleen esperientzia eta jakituria erabiltzea. Esan bezala, parte-hartzea eta elkarreagin bultzatu egin behar dugu, eta, horrekin batera, ikaslearen autonomia. Irakasleok ezinbesteko ez izatea lortu behar dugu, eta, horretarako, nahitaezkoa da ikaslearen autonomia bultzatzea. Ikasleak bere ikasprozesuaren gidari izan behar du, bere bid ea egin, eta irakasleok aholku eman eta lagundu egin behar diogu bide horretan.

Aholku eman, lagundu eta irakatsi egin behar dugu irakasleok; baina, lehenago aipatu bezala, inori minik eman gabe, inor zauritu gabe. Helduekin ari gara, baina, helduak izanagatik, ezin dugu pentsatu aurrean ditugunengan eraginik ez dugunik, edo minik emango ez diegunik, egiten duguna egiten dugula. Eragina dugu, eta handia gainera. Askotan, gure esku dago ikaslea konbentzitu eta ikasi dezan lortzea, edo hasieran jarria zuen helburua bertan behera uztea. Pertsona tonikoak eta toxikoak daude, eta irakasleok toniko izaten saiatu behar dugu. Geure burua estimulatu egin behar dugun eran, geure ikasleak ere estimulatu egin behar ditugu, eta emozio onak sortu, horrek ikasleen motibazioa areagotu egingo duelako.

Motibazioaz gain, irakasle onak ikaslearen garapen pertsonala indartzeko gaitasuna ere erakutsi behar dio. Poztu egingo gara ikaslearen arrakastarekin, eta adieraziko diogu merezitako emaitza duela.

Irakasleak uste osoa jarri behar du bere lanean, eta ziurtasuna transmititu; erabakitzailea da. Bere, nahiz ikasleen posibilitatean konfiantza osoa izan behar du. Ikasleen aurrean dagoenean, pentsatu behar du munduko ikaslerik onenak dituela aurrean, eta tarteka esan ere egin behar die hori ikasleei: munduko ikaslerik hoberenak direnez, horixe da espero duena beraiengandik, otero daitekeen ahalik eta emaitzarik edo etekinik hobereana, hain zuzen ere.

Ikastea gogorra izan arren, gozamina bilatu behar dugu ikastearekin, eta, beraz, gure ikasleei gozamen hori topatzen lagundu behar diegu.

Ikasle ezjakin, gogogabetuaren ideia alde batera utzi behar dugu. Gaur egun, lehen esan bezala, gure ikasleek guk adina informazio dute eskura, eta informazio hori behar bezala kudeatzen lagundu behar diegu. Horretarako, ezinbestekoa da ikaslearekin negoziatzea. Edonork ikas dezake edozer, berak hala nahi izanez gero. Eskola magistralen garaiak joanak dira.

Etorkizuneko euskaltegiak

Azken 25 urteotan gauzak aldatu zaizkigun moduan aldatzen jarraituko dutela esango nuke; areago, etengabe aldatzen joango direla. Aldaketak, ordea, geure onerako izan daitezten saiatu behar dugu, orain artekoak izan diren bezala. Badugu, gure barruan, uste bat oso barneratua: “Ezagutzen ez den ona baino, ezagutzen den txarra hobe”. Uste hori irakasbide bihurtuta, beldurra diogu ezezagunari. Baina esaera horri beste hau erantsiko nioke: “Usteak erdia ustel”. Eta horixe da, hain zuzen ere, eskarmentuak erakutsi diguna: ezezaguna zen oro ez da hain txarra izan, orain arte.

Gaur egungo euskaltegietan, baliabideak, ikasleak eta irakasleak ez dira garai batekoak, eta, etorkizunean ere, ez dira berdinak izango. Maiz entzuten dugu mundu globalizatuan bizi garela, baina, dagoeneko, geure begien aurrean ere baditugu hainbat zantzu, aipatutakoa egia biribila dela erakusten digutenak.

Baliabideak ikaragarriak dira, eta ia dohainik ditugu eskura nahi hainbat tresna eta euskarri, mundu osoarekin lotzen gaituztenak. Etengabea da, gainera, tresna eta baliabide horien bilakaera eta berrien sorrera.

Ikasleei dagokienez, inguruan dugun immigrazio-kopuruarekin, munduko edozein lekutako jendea izan dezakegu aurrean, euskaltegiko eskoletan. Orain arte, hego Euskal Herrian behintzat, irakasle eta ikaslearen artean izan dugun bitarteko hizkuntza, gaztelania, gutxi ezagutzen dutenak ere maiz hurbiltzen zaizkigu; gazteek guk erabiltzen ez genituen tresnak eta bideak erabiltzen dituzte komunikatzeko eta ikasteko: internet, poltsikoko telefonoa...; ikasteko moduak ere erabat aldatu dira: ordenagailuaren bidez, bakarkako tutore batekin...

Jendeak irakaskuntza gero eta pertsonalatuagoa eskatzen digu. Irakasleok, beraz, ezin ibiliko gara ez garai bateko ohiturekin, ezta gaur egun ditugun ohiturekin ere. Irakasleok aholkulari, gidari eta lider izateaz gain, baliabide berrien bilakaeren berri izan beharra dugu: etengabe ikasten aritu beharra dugu tresna eta baliabide berriak erabiltzen, geure ikasleekin erabili ahal izateko. Etorkizuna, beraz, etengabe ikasten ari direnen esku dago, izan ikasle edo izan irakasle.

Askotan esan ohi da irakasleak garela ikaslerik txarrenak. Zorritzarrez, askotan esaldi hori egia biribila den arren, definizio hori errotik atera, eta erabat baztertzen saiatu behar dugu. Ez daukagu bertan goxo egiterik.

Orain arteko aldaketak lortzeko bezala, etorkizunekoak ere egin ahal izateko, emozioen kudeaketak asko lagunduko digu. Irakasleok geure burua egoki baloratu behar dugu, eta konfiantza izan. Ez dugu sekula pentsatu behar garen bezalakoak garela eta kito. Noizbehinka geure burua zalantzan jartzea eta aldatzea ona da. Aldaketa eta erronkei aurre egiteko prest egon behar dugu eta aukera berriei atea irekita egoteko ahalmena izan. Aldaketak nekosoak izaten dira, baina ohikeria da ekidin behar duguna.

Ikasleen kasuan bezala, irakasleok ere aiseago ikasiko dugu geure kideengandik, eta beraz, komenigarria baino areago, ezinbestekoa dela esango nuke geure horiengandik ikasten saiatzea. Esperientziak partekatu egin behar dira.

Esanak esan, euskaltegietako irakasleok leku ezin hobean gaude etorkizuneko erronkei aurre egiteko. 25 urtean lan honetan aritu bagara, ikasi eta moldatu egin garelako izan da. Horrek eskarmentua eta meritua ematen digu, eta lanbide berbera eduki ahal izatea kalitatearen seinale da. Hala ere, etengabe ikastea eta irakastea izan behar du gure lanak, hogeita bost urte hauetan egin dugun gisan. Eutsiko ahal diogu orain arteko bideari, eta ez ahal dugu sekula galduko geure konfiantza eta ilusioa!

Bibliografia

Bisquerra, R. 2000. Educación emocional y bienestar. Barcelona: Praxis.

Goleman, D. 1996. Inteligencia emocional. Barcelona: Kairós.

Handy, C. 1993. La organización por dentro. Por qué las personas y las organizaciones se comportan como lo hacen. Bilbao. Deusto.

Vera, J. L. 1995. Fundamentos teóricos y prácticos de la autonomía del aprendizaje en la enseñanza de las lenguas extranjeras. Universidad de La Laguna.